



# Osasuna Politika Guztietan

**BATZORDE TEKNIKOA**



Txosten  
sektoriala **2020**

**Garraioak**

2022ko otsailaren 7an



*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

“Euskadirako Osasun Politikak 2013–2020” dokumentua funtsezko tresna da euskal herritarren osasuna mantentzeko eta hobetzeko. Dokumentu horretan, pertsonen garraioarekin eta mugikortasunarekin lotura zuzena duten jardueraildo batzuk identifikatzen dira, eta horien artean daude honako helburu eta ekintza hauek:

## • 1.2. HELBURUA. EKITATEA

o 1.2.4. ekintza. Osasun-zerbitzuetarako irisgarritasun unibertsala, zainketaren jarraitutasuna eta kalitatezko arreta integrala bermatu Euskadin bizi diren pertsona guztientzat, eta ezabatzea kolektibo edo giza talde jakin batzuentzat osasun-zainketak jasotzeko oztopo diren desabantaila edo zailtasunak, esaterako:

- Barrera fisikoak eta garraioarekin lotutakoak, pertsonen aniztasun funtzionala dela-eta

## • 1.3 HELBURUA. EGITURAZKO BALDINTZATZAILEAK ETA BITARTEKOAK

o 1.3.1. ekintza. Osasun Planaren Batzorde Gidariak gizarte kohesioa eta ongizatea sendotzeko esku-hartzeak sustatuko ditu, osasuna sortzeko eta osasun ekitatea areagotzeko.

- Birbanaketa-politikak eta gizarte babesteko politikak; hezkuntza publikoa eta kalitatezkoa lehen haurtzarotik eskuratzeko aukera unibertsala; etxebizitza duina eta egokia eskuratzeko aukera; garraio aktiboa; hirigintza inklusiboa.

o 1.3.2. ekintza. Politika Guztietako Osasun Batzorde Teknikoak, gizarte-ongizatea eta kohesioa indartu daitezen, esku-hartze koordinatuko proposamenak egingo ditu, honela:

- 3. Hiri-mugikortasunaren eta garraio publikoaren planifikazioa, oinezko eta bizikleta bidezko lekualdaketak bezalako aukera osasungarriak erraztuta.

---

### • 3.1. HELBURUA. ZAHARTZE AKTIBOA

- o 3.1.1. ekintza. Euskadin Adinekoekin Hiri Adiskidetsuak Programaren garapena sustatzea, Eudel eta inplikaturako Eusko Jaurlaritzako Sailekin batera.

“Euskadiko Osasun Plana 2013-2020” delakoan jasotako ekintzak hertsiki lotuta daude “Euskadiko Garraio Iraunkorraren 2030 Gida Plana” delakoan zehaztutako estrategiekin. Plan hori 2017ko ekainaren 13an onartu zen, eta gauzatze bidean dago gaur egun. Hala, horren xedea da *“garraio-eredu jasangarri eta integratu baterantz egitea, Euskadiko gizarte-kohesiorako eta garapen sozioekonomikorako tresna gisa”*.

Era berean, “2018-2020 aldirako Mugikortasun Elektrikoaren Plan Integrala”k, 2018ko uztailaren 30ean onartutakoak, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) mugikortasun jasangarria eta ibilgailu elektrikoa bultzatzea du helburu, mugikortasun elektrikoa elementu estrategiko gisa definituz, besteak beste, *“herritarren osasuna eta bizikaltatea hobetzeko, tokiko kutsatzaileak, partikulak eta zarata murriztuta”*.

## 2020KO JARDUERAK

“Euskadiko Garraio Iraunkorraren 2030 Gida Plana” izenekoan definitutako estrategiekin bat etorriz, 2020an Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak honako jarduera hauek egin ditu herritarren osasunarekin, segurtasunarekin eta mugikortasun iraunkorrarekin lotuta:

### Euskadiko Garraio Agintaritzaz

Gai hauei buruzko txostenek jarraipena izan dute:

- *Bat-Barik-Mugi interoperabilitatea*, Euskadiko garraio publikoko sisteman integratutako garraio bide guztientzat ordainbide bakar bat ezartzeko. Ildo horretan, Alavabusek eta Tuvisak sistema teknologikoak egokitzen jarraitu dute, elkarreragingarritasuna ezartzeko. Bestalde, nabarmentzekoa da COVID-19aren eragina, beste lurralde batzuetako txartelen erabilerak beherakada handiak izan baititu martxotik.
- *Irisgarritasuna*, Euskadiko Garraio Sistemaren irisgarritasuna hobetzeko, gabeziak eta kolektiboaren eskaerak identifikatuta eta ahal den neurrian konponduta, eta gizartearen aldetik irisgarritasuna bizitzako arlo guztietan txertatzeko jarrera sortzea, pertsonen mugikortasun autonomoagoa lortzeko. Euskadin bidaiarien garraioan eskudun diren administrazioek, entzumen, mugikortasun, ikusmen eta adimen desgaitasuna duten pertsonen elkarteek, garraio operadoreek, eta garraio-elementuak

---

fabrikatzen eta berritzen dituzten enpresek hartu dute parte txostenean Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak irisgarritasun unibertsaleko euskal estrategia lantzen lagundu du garraioari dagokionez.

-*“Errepidetik salgaiak garraiatzeko estibatze euskal gida bat egiteko” txostena.* 2020an, amarratzeak kalkulatzeko aplikazio digital bat argitaratu da, 2019an argitaratutako gidan oinarrituta.

-*Taxien sektorearen egungo azterketa, gakoak eta aukerak*, non pertsonen irisgarritasun-beharrak jasotzen diren, sektorea aztertzen eta erronka berriei aurre egiten lagunduko duten estrategiak bilatzeko plataforma gisa.

## Moveuskadi

Moveuskadi Euskadiko garraio publikoari buruzko informazio-plataforma mantendu da. 2020an egoeraren diagnostiko bat egin da Moveuskadik MaaSera (Mobility as a Service) egin dezakeen bilakaera aztertzeko, eta plataforma berean integratu dira Euskadiko garraio publikoko operadoreak, beste mugikortasun partekatuko sistema batzuekin batera, erabiltzaileen beharretara egokitutako ibilbide, erreserba eta ordainketen aukera multimodalak eskaintzeko helburuarekin.

## Laguntzak

garraioaren sektore profesionalaren lehiakortasuna sustatzeko, honako laguntza hauek eman dira EAEn:

### 1. Elkartegintzarako laguntzak

Helburua: EAEko errepideko garraioaren eta jarduera osagarrien sektoreko elkarte profesional eta enpresarialen jarduerak eta ekimenak sustatzea, sektorearen interesak ordezkatzeko eta defendatzea helburu dutenak.

Elkarte onuradunak 2020an: 7

2020an gauzatutako zenbatekoa: 65.000,00 €

### 2. Kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistemak ezartzeko laguntzak

Helburua: EAEko salgaien eta bidaiarien garraio publikoko enpresetan kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistemak ezar daitezen sustatzea, garraio publikoaren zerbitzua ematean segurtasun, kalitate, gardentasun eta arintasun handiagoa lortzeko, bai eta ingurumenean eragin negatiboa izan dezaketen jarduerak, produktuak edo zerbitzuak kontrolatzeko

---

mekanismoak edukitzea eta ingurumen-arloko lege-eskakizunak betetzea ere, garraio-sistema iraunkor bat lortzen laguntzeko.

Elkarte onuradunak 2020an: 3

2020an gauzatutako zenbatekoa: 1.482,50 €

### **3. Teknologia berri eta segurtasun sistematarako laguntzak**

Helburua: salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektorearen modernizazioa sustatzea, flotak kudeatzeko sistemak, segurtasuna eta erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetuko dituzten teknologia berrien sistemak ezarrita.

Elkarte onuradunak 2020an: 13

2020an gauzatutako zenbatekoa: 19.994,06 €

### **4. Jarduera uzteko laguntzak**

Helburua: salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektorean adineko garraiolariak edo erabateko ezintasun iraunkorra, ezintasun osoa edo baliaezintasun handia aitortua dutenek lanbidea uztea sustatzea.

Pertsona onuradunak 2020an: 29

2020an gauzatutako zenbatekoa: 220.954,81 €

## **Titulu profesionalak**

Garraio-sektorearen profesionalizazioaren esparruan, honako titulu hauek lortzeko azterketak egin dira:

- Errepideko garraiolariak gaitzea.
- Salgai arriskutsuak errepidez garraiatzeko segurtasun aholkularia.

## **Araudia**

- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra onartu da, 2017-2028 aldiari dagokiona, maiatzaren 19ko 63/2020 Dekretuaren bidez.

## **Euskadiko Garraio Behatokia (OTEUS)**

Se publica el informe "Panorámica 2019", incluyendo un diagnóstico de la situación del transporte y una valoración del cumplimiento de objetivos, estrategias y líneas de actuación del "GJGP Euskadi 2030".

---

## 2021ERAKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK

“Euskadi 2030 Garraio Jasangarriaren Gida Planean” definitutako estrategiekin bat etorritik, Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak honako jarduera hauek egiteko asmoa du 2021ean, herritarren osasun, segurtasun eta mugikortasun jasangarriarekin lotuta:

### Euskadiko Garraio Agintzaritza

Ondorengo txosten hauekin jarraitzea aurreikusten da:

- *Bat-Barik-Mugi interoperabilitatea*, Euskadiko garraio publikoko sisteman integratutako garraio bide guztientzat ordainbide bakar bat ezartzeko. 2021ean, operadore guztien arteko erabateko elkarreragingarritasuna lortzeko beharrezkoak diren garapen teknologikoekin jarraituko dute Alavabus, Tuvisa, Metro Bilbao eta Lurraldebus enpresek.
- *Irisgarritasuna*, Euskadiko Garraio Sistemaren irisgarritasuna hobetzeko, gabeziak eta kolektiboaren eskaerak identifikatuta eta ahal den neurrian konponduta, eta gizartearen aldetik irisgarritasuna bizitzako arlo guztietan txertatzeko jarrera sortzea, pertsonen mugikortasun autonomoagoa lortzeko.
- *Taxien sektorearen egungo azterketa, gakoak eta aukerak*, sektorea aztertzen eta erronka berriei aurre egiten lagunduko duten estrategiak bilatzeko plataforma gisa.

### EGA txostenak

Euskadiko Garraio Agintaritzak pertsonen eta salgaien garraioari eta mugikortasunari eragiten dieten lurralde-antolamenduko planei buruzko informazioa ematen jarraituko du.

### Moveuskadi

2021ean Moveuskadi web-ataria eguneratuko da, bai eta gailu mugikorretarako aplikazioak ere, plataformaren funtzionaltasunak sustatzeko, interfaze erraz, intuitibo eta erakargarri baten bidez, garraio bide gehiago integratzeko eta informazioa denbora errealean eskaintzeko, gutxieneko kalitate-estandarrekin eta -eskakizunekin.

### Laguntzak

garraioaren sektore profesionalaren lehiakortasuna sustatzeko, honako laguntza hauen deialdia egingo da EAEn:

---

### **1. Elkartegintzarako laguntzak**

Helburua: EAEko errepideko garraioaren eta jarduera osagarrien sektoreko elkarte profesional eta enpresarialen jarduerak eta ekimenak sustatzea, sektorearen interesak ordezkatzeko eta defendatzeko helburu dutenak.

2021erako aurrekontua: 100.000 €.

### **2. Teknologia berri eta segurtasun sistemetarako laguntzak**

Helburua: Salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektorearen modernizazioa sustatzea, flotak kudeatzeko sistemak, segurtasuna eta erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetuko dituzten teknologia berrien sistemak ezarrita.

2021erako aurrekontua: 113.000 €.

### **3. Jarduera uzteko laguntzak**

Helburua: salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektorean adineko garraiolariak edo erabateko ezintasun iraunkorra, ezintasun osoa edo baliaezintasun handia aitortua dutenek lanbidea uztea sustatzea.

2021erako aurrekontua: 295.000 €.

## **Títulos profesionales**

Garraio-sektorearen profesionalizazioaren esparruan, honako titulu hauek lortzeko azterketak egin dira:

- Errepideko garraiolariak gaitzea.
- Salgai arriskutsuak errepidez garraiatzeko segurtasun aholkularia.

## **Araudia**

- Euskadiko Mugikortasun Iraunkorraren Legea izapidetu da.
- Kableko Garraioaren Legea izapidetzea.
- Mugikortasun Iraunkorreko Plana egitea.

## **Observatorio del Transporte de Euskadi (OTEUS):**

Txosten hauek egitea edo eguneratzea aurreikusi da:

- Euskadiko garraioaren panoramika 2020.
- Mugikortasunari eta eskariaren irudiari buruzko azterlana.
- Euskadiko garraioaren kanpo-kostuak.

